

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Lavoisierri, esker onez

PARIS, 1794KO MAIATZAREN 8A. Frantziako Iraultzako Izualdi betean, garaiko zientzialaririk bikainenetakoa exekutatu zuten.

Antoine-Laurent Lavoisier (1743-1794) kimika modernoaren aita da. Hidrogenoa eta oxigenoa identifikatu eta izendatu zituen, atal honetan jaso genuen moduan (ARGIA, 2201. zenbakia) flogistoaren teoria bertan behera utzi zuen, sistema metrikoaren teoria osatzen lagundu zuen, errekuntza metodo eraginkorrakoak asmatu zituen...

Baina garai kaotikoa izan zen harena, zientziaren garapenerako desegokia. 1794an Frantziako Iraultzako buruek Zientziaren Akademia ixtea erabaki zuten eta Lavoisier jomugan izan zuten berehala. Kutsu aristokratikoa omen zuen kimikariak, noblezia titulurik eta ondasunik izan ez arren; bere lanek emandako ospea baino ez zuen. Lavoisierrek hainbat zientzialariren alde jardun zuen eta horietako batzuk gillotinatik salbatzea lortu zuen, esaterako Joseph Louis Lagrange matematikari, fisikari eta astronomoa.

Bere burua, aldiz, ezin izan zuen salbatu. 1794an, Izuaren erregimena indarrean zela, Jean-Paul Marat buruzagi iraultzaileak berak



Antoine Lavoisier eta emaztea 1788an, Frantziako Iraultza piztu baino urtebete lehenago.

WWW.WIKIMEDIA.ORG

zuzenean akusatu zuen, beste 27 intelektualekin batera. Karguak absurduak ziren, besteak beste tabakoa adulteratzea, baina horren atzean mendeku pertsonala zegoen. Urte batzuk lehenago, Maratek asmakizun bat aurkeztu zuen, eta Lavoisierrek baztertu eta erridikulutzat jo zuen.

Heriotza zigorra jaso zuzenean, kimikariak azken gutuna idatzi zuen, barkamen eske, bere ikerketa lanen garrantzia eta lan horiek amaitzeko beharra argudiatuz. Epaile iraultzailearen argudioa eskasagoa baino irmoagoa izan zen: "Errepublikak ez du zientzialaririk eta kimikaririk behar, justiziaren bidea ezin da eten".

Frantzia iraultzailea esker txarrekoa izan zen zientzialari handiarekin, baina hil ondoren ere herrikideek ez zuten interes handirik izan Lavoisier omentzeko. Metalezko estatua bat baino ez zuten egin haren omenez, eta beste pertsonaia baten burua ipini zioten gainera, eskultoreak ez omen zuelako Lavoisierren aurpegiera kopiatzeko denborarik. Estatua bakan hura Bigarren Mundu Gerran balak egiteko funditu zuten, seguruenik hori egiteko Lavoisierren ikerketa lanak funtsezkoak izan zirela jakin gabe.

Arrastoak

Van Goghen gutun bat jaso nahi duzu?

WWW.VANGOGHLETTERS.ORG webgunean Vincent Van Goghek (1853-1890) idatzitako 900 gutun inguru jaso dituzte. Artista ezagunak nederlandaraz eta frantsesez idatzi zituen eskutitzok, baina webean ingelesezko itzulpena ere ipini dute eskura. Gutunak garai horretan Van Gogh margotzen ari zen lanekin lotu

dituzte; hala, bere obrak osatzen ari zela buruan zer zebilkion jakin daiteke. Bilatzaileak gutunak kronologia, kokapen geografikoa edo eskutitza jaso zuen pertsonaren arabera aurkitzea ahalbidetzen du. Kronologia zehatzak, bibliografiak, glosario batek eta dokumentazio oparoak osatzen dute webgunea.



WWW.POSITIVEPSYCHOLOGYNEWS.COM